

01/2018 UDALEKO OSOKO BILKURA

2018KO OTSAILAREN 26AN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)

Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)

Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)

Kepa De la Iglesia Sánchez (EAJ taldea)

BITARTEKO IDAZKARIA:

Pedro M^a Odriozola Zubizarreta

Anoetako udaletxean, 2018ko otsailaren 26an arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen Lehendakaritzapean, eta Pedro M^a Odriozola Zubizarreta jauna, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Iñaki Merino Castro, Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziek ez dute ezin etorria adierazi.

1.- 2017KO AZAROAREN 27AN ETA 2017KO ABENDUAREN 20AN OSPATURIKO UDAL PLENOAREN BILKUREN AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA.

2017ko azaroaren 27ko eta 2017ko abenduaren 20ko udal plenoaren bilkuren aktak aho batez onartu dira.

2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2017KO AZAROAREN 16TIK ABENDUAREN 28A BITARTE, 489 ZENBAKITIK 549 ZENBAKIRA, BIAK BARNE, ETA 2018KO URTARRILAREN 2TIK OTSAILAREN 13A BITARTE, 1 ZENBAKITIK 53 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.

2017ko azaroaren 16tik 2017ko abenduaren 28a bitartean eta 2018ko urtarrilaren 2tik 2018ko otsailaren 13a bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, udal batzarkideak jakinaren gainean geratuz.

3.- 2017KO ABENDUAREN 28KO 544 ZENBAKIDUN ALKATE EBAZPENAREN BERRI EMATEA: 2/2017 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

2017ko abenduaren 28ko ebazpenaren berri ematen du alkate jaunak, 2/2017 kreditu aldaketari dagokiona, udal batzarkideak jakinaren gainean geratuz.

“D E K R E T U A

Anoetan, bi mila eta hamazazpiko abenduaren hogeita zortzian.

2017 urteko ekitaldian onartutako aurrekontuan beharrezko diren zenbait gastu

gauzatu ahal izateko, ez dago nahiko kreditu erabilgarririk. Arrazoi honengatik honako kreditu aldaketa espedientea aztertu dugu. Behar diren kredituen sorkuntza edo gehikuntza formalizatzeko kreditu transferentzia erabili da.

Gastuak burutzeko premia larria eta aipatutako gehikuntzak finantzatzen dituzten baliabideen eraginkortasuna behar bezala egiaztatuta geratu da eta kreditu aldaketa hori Aurrekontuaren garapena arintzeko eta eragiten dien zerbitzuen kudeaketa hobetzeko mesedegarria izango da.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan eta 2017ko ekitaldiko Aurrekontua Exekutatzeko Arauko 4. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Dagozkidan eskuduntzaz baliatuz, **HONAKOA**
EBATZI DUT:

Lehenengo.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu transferentzi bidez egin beharreko **kreditu aldaketarako espedientea onestea**, proposamenaren eta ondoko zehaztapenaren arabera:

1.- KREDITU

TRANSFERENTZIA

GASTUAK

PARTIDA	
1.0000.933.010.00.0 1	Epe luzerako maileguen amortizazioa
1.0000.226.336.00.0 6	Hainbat ekintza. Basagain

FINANTZATZE

N DITUZTEN

BALIABIDEAK

PARTIDA	KONTZEPTUA
1 0000.130.920.09.01	Eraikinen mantenuko pertsonala

Bigarren.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoaren Kontu-hartzaile Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin islatzea.

Honela agindu eta sinatu du Pedro M^a Estanga Lasa alkateak; eta neuk, idazkariak, fede eman.”

4.- GAIKUNTZA NAZIONALEKO TOKI ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOEN LEHIAKETA ARRUNTEAN, UDAL HONETAKO HUTSIK DAGOEN IDAZKARI LANPOSTURAKO MEREZIMENDU ESPEZIFIKOAK JARTZEA.

Udal honetako Idazkari lanpostua 2015eko abenduak 1etik aurrera hutsik egonik, Gaikuntza Nazionaleko funtzionarioentzat urtero ateratzen den lehiaketa arruntean, Udalak oinarri espezifikoak onartzeko ahalmena dauka eta Gipuzkoako Foru Aldunditik hori egiteko eskatu zaio udalari.

Aztertu dira Udal idazkariak araudi aplikagarria jarraituz proposatutako oinarri espezifikoak eta aho batez onartuak izan dira. Hauek dira:

Lanpostuaren ezaugarriak:

- 4. H.E. (derrigortasun data igarota).
- Maila: (Lanpostu zerrendaren arabera dagokiona)
- Osagarri espezifikoa (lanpostu zerrendaren arabera dagokiona)

1.- Proposatzen diren merezimendu espezifikoak:

1.1.- Emandako Zerbitzuak:

- 3. Mailako idazkaritza lanpostuetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan emandako zerbitzuak: 0,05 puntu hilabete bakoitzeko (gehienez puntu 1).

1.2.- Ikastaro, master eta diplomak:

- IVAP-ek edo Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde ofizialen batek antolatua, egindako 40 ordu edo iraupen luzeagoko ikastaroak, espezialitate juridiko-ekonomiko- administratiboari buruzkoak badira eta betebeharreko lanpostuarekin zerikusia badute: 0,1 puntu ikastaro bakoitzeko (0, 25 puntu gehienez).

- IVAP-ek edo Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde ofizialen batek antolatutua, egindako graduondoko unibertsitate tituluak, masterrak, etab.... Zuzenbide administratiboari buruzkoak eta gutxienez 200 orduko iraupenekoak badira: 0,1 puntu titulu bakoitzeko (0,25 puntu gehienez).

Berariazko merezimenduak egiaztatzeko modua:

- Emandako zerbitzuak: zerbitzuak eman direneko Toki Administrazioak egindako ziurtagiri bidez..
- Ikastaro eta diplomak: jatorrizko titulo edo diplomen kopia konpultsatu bidez.

Elkarrizketa: Bai (Ez da aurrirakusten zenbatekorik elkarrizketaren ondorioz egin beharreko joan etorrien gastutarako).

2.- Epaimahaiaren osaera:

- Mahaiburua: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak izendatutako kide bat
- Mahaikideak:

- Gaikuntza nazionala duen Toki Administrazioiko funtzionario bat, , deitutako lanpostuaren maila berekoa edo handiagokoa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatutako kide bat.
- Idazkari: Mahaikideetako bat.

Aipatutako proposamena bozketara eraman eta aho batez onartu da.

5.- 2018 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA, AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA, UDALEKO PLANTILA ORGANIKOA ETA LANPOSTU ZERRENDA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2018 urteko Aurrekontu Orokorra ikusirik.

2018ko Aurrekontuak gauzatzeko Araua ikusi ondoren.

2018 ekitaldirako Plantilla Organikoa eta Lanpostuen zerrenda ikusi ondoren.

Udaleko idazkari kontu-hartzaileka egindako txostenak ikusi ondoren:

- Finantza eta ekonomia
- Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzkoa.
- Espedientearen tramitazioa
- Plantilla Organikoa eta lanpostuen zerrenda.

2018ko otsailaren 22an Ogasun Batzordeak aho batez emandako irizpena ikusi ondoren.

Alkateak Aurrekontu osoaren berri eman ondoren bozketara eraman du ondorengo emaitza lortuz:

Aldeko botuak: SEI (EH Bildu taldearenak ETA EAJ taldearenak)

Aurkako botuak: BAT ERE EZ

Abstentzioak: BAT ERE EZ

Beraz, bozketaren emaitza ikusi ondoren erabakitzen da:

Lehen.- 2018 ekitaldirako Udalaren Aurrekontu Orokorra onestea, kapituluka honela laburbilduz:

Sarrerera egoera:

Kapituloa	Izena	Euro
1	Zuzeneko zergak	479.100
2	Zeharkako Zergak	17.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	267.060
4	Transferentzi arruntak	1.435.978
5	Ondare-sarrerak	11.010
6	Inberts. Erreal.besterenganat zea	1.853
7	Kapital	
7	Transferentziak	20
8	Finantza aktiboak	0
9	Finantza pasiboak	0
GUZTIRA SARREREN AURREKONTUA		2.212.021,00

Gastuen egoera:

Kapituloa	Izena	Euro
1	Pertsonal gastuak	669.251
2	Ondasun arrunt eta zerb. erosketa	778.965
3	Finantza gastuak	30.900
4	Transferentzia arruntak	395.137
5	Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	32.285
6	Inbertsio errealak	125.483
8	Finantza-aktiboak	0
9	Finantza-pasiboak	180.000
GUZTIRA GASTUEN AURREKONTUA		2.212.021,00

Bigarrena.- 2018 urteko Udalaren Aurrekontua gauzatzeko Araua onestea.

Hirugarrena- 2018 urterako ondorengo Plantilla Organikoa eta Lanpostu Zerrenda onestea:

1.- 2018. URTERAKO PLANTILA ORGANIKOA

A) KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATURIKO POSTUAK

a) Gaikuntza Nazionaleko eskala

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera
1.- Idazkari Kontu-hartzailea	1	A1	H

b) Administrazio Orokorreko eskala

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera
1.- Administrazio Orokorreko teknikaria	1	A1	J
2.- Administrataria	1	C1	J
3.- Administrari laguntzailea	2	C2	H

c) Administrazio Bereziko eskala

- Azpi eskala teknikoa

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera	Jarduna
1.- Aparejadorea	1	A2	H	% 68,6
2.- Gizarte Langilea	1	A2	H	% 60
3.- Hizkuntza normalkuntzarako teknikaria	1	A2	H	% 60
4.- Kultur Dinamizatzailea	1	A2	J	

5.- Liburutegi arduraduna	1	C2	H	% 52
---------------------------	---	----	---	------

- Azpi eskala Zerbitzu Bereziak

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera
1.- Zerbitzu anitzetako ofiziala	1	C2	J

B) LAN HITZARMENDUN LANGILEAK

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera	Jarduna
1 Kale garbitzailea	1	E	H	
2 Eraikin garbitzailea	2	E	H	1 % 57
3 Zerbitzu anitzetako peoia	1	E	BB	
4 Eraikinen mantenua	1	C2	Desagertzear	
5. Aparejadorea	1	A2	Desagertzear	
6. Euskara Teknikaria	1	A2	Desagertzear	

C) ALDI BATERAKO LANALDIETARA GORDETAKO POSTUA

Ez dago

EGOERA

J: Jabetzan

BB: Behin betiko

H: Hutsik

2.- ANOETAKO UDALEKO 2018. URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

A) *Karrerako funtzionarioentzat erresebatutako lanpostuak*

DEITURA	LANP. KOPU.	ORDAIN OSAGAIAK DESTINU ESPEZIF	TALDEA	ESKALA	AZPI ESKALA	HIZKUNTZA ESKAK. KOEF DER.DAT	BET. ERA	E.TIT	DED %.	BALDIN. ESPEZIF		
Idazkari Kontu hartz.	1	2016833	A1			GN	IK	4	94.XII.31	L	1	100
Administr. Orok. Teknikaria	1	2115.138	A1	AO	T	4	06.II.16	LO		1	100	
Aparejador ea	1	1912.437	A2	AB	TB	3	02.XII.31	LO		3	68,6	
Gizarte langilea	1	177.042	A2	AB	TB	3	92.XII.31	LO		3	60	
Hizkuntza Nor.tek	1	175.467	A2	AB	TB	4TG	---	LO		3	60	
Kultur dinamizatza.	1	178.071	A2	AB	TB	3	00.XII.31	LO		3	100	
Administrazio	1	1413.030	C1	AO	AA	3	94.XII.31	LO		4	100	
Administr. Lagun.	2	1112.019	C2	AO	AL	2	92.XII.31	LO		5	100	
Liburutegi ardurad	1	146682	C1		AB	AA	3	92.XII.31	LO	4	52	
Zerb. Anitz. Ofiziala	1	1215047	C2		AB	ZB	2	94.XII.31	LO	5	100	% 15

B) Lan hitzarmendun langileentzat erresebatutako lanpostuak

Lanpostua	LANP. KOPURUA	ORDAIN OSAGAIAK DESTINU OSAG. OSAG. ESPEZIF	TALDEA	HIZKUNTZA ESKAK. KOEF DER. DATA	BETERA	E. Tit	DED.%	
Kale garbitzailea	1	810.994	E	1	09.XII.31	LO	6	100
Eraikinen garbitzailea	1	810.994	E	1	92.XI.31	LO	6	100
Eraikinen garbitzailea	1	86.267	E	1	08.XII.31	LO	6	57

Zerbitzu anitzetako peoia	1	8 10.994	E	1	00.XII.31	LO	6	100
Eraikin Mant.	1	11 9.715	C2	Desagertzeaz				
Aparejadorea	1	19	12.437	A2	Desagertzeaz			
Euskara Teknikaria	1	17	5.467	A2	Desagertzeaz			

KLABEAK

TALDEA EDO ESKALA
GN GAIKUNTZA NAZIONALA
AO ADMINISTRAZIO OROKORRA
AB ADMINISTRARIO BEREZIA

AZPIESKALA

IK: IDAZKARI KONTU HARTZAILEA
T: TEKNIKARIA
TB: ADMINISTRAZIO BEREZIKO TEKNIKARIA
AA: ADMINISTRARIA
AL: ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA
ZB: ZERBITZU BEREZIAK

HORNIDURA MOTA

L LEHIAKETA
LO LEHIAKETA OPOSAKETA

ESKATUTAKO TITULUA:

TITULAZIOA

1. LIZENTZIATURA
2. UNIBERTSITATEKO DIPLOMADUNA, ARKITEKTO TEKNIKOA.
3. BATXILERGOA, LANBIDE HEZIKETA 2. MAILA EDO BILIOKIDEA.
4. ESKOLA GRADUATUA, LH 1.MAILA EDO BALIAKIDEA.
5. ESKOLA AGIRIA

Laugarren.- Hasierako izaeraz onetsi den Aurrekontu Orokorra, Plantilla Organikoa eta Lanpostu zerrenda, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean dagoen legediak agintzen duena bezala.

Aurrekontu Orokorra jendaurrean aurkezturik dagoen epealdian inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko izaeraz onetsita geratuko da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da berriro, kapituluz kapitulu laburturik.

Bosgarren.- Aurrekontu Orokorra, behin-betiko izaeraz onetsirik, eta Plantilla Organikoaren eta Lanpostu Zerrendaren kopia bana, Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, dagokion departamentuetara.

6.- OTSAILAREN 27AN SAHARAR ERREPUBLIKA ARABIAR DEMOKRATIKOAREN ALDARRIKAPENAREN 42. URTEURRENAREN INGURUAN MOZIOA.

EH Bildu talde politikoak deialdiarekin batera banatutako ondorengo mozioa aho batez onesten da:

“2018ko Otsailaren 19an Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 42. urteurrenean, Tolosaldea Sahararekin elkarteak Anoetako udalbatzari ondoko mozioa aurkezten dio hurrengo ohiko plenoan eztabaidatu bozkatu eta onartu dezan.

Udalbatza honek ondokoa adierazi eta eskatzen du:

1.-Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zanpaketa, atxiloketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagerketak, deportazioak eta orokorrean giza eskubideen aurkako

erasoen salaketa irmo eta erabateko gaitzespena adierazten du.

2.-Mendebaldeko Sahararako Erreferendumaren Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO) giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan eskatzen du, Nazio Batuen erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa baztertzen duen misio bakarria izateari utzi diezaion.

3.-Sahararrei eta pertsona orori dagokigun mugimendu askatasunaren errespetua eta Mendebaldeko Saharako biztanleak zatitzen duen 2600km luze den lotsaren harresia eraistea eskatzen du.

4.-Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen legez kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki,saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar batasuneko (EB) eta Marokoko estatuaren arteko ituna etetea eskatzen du.

5.- Europar Batasuneko (EB) gainontzeko estatuekin batera, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudenzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako kolonizazio prozesua amaitzea eskatzen du.

6.- Espainiar estatuko diputatuen kongresuak ebatzitakoa behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuai, Marokokoa kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea, hau da, bere legedia betetzea eskatzen du.

7.-Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 42. urteurrenarekin bat etorriz, 2018ko Otsailaren 27an Mendebaldeko Saharako bandera udaletxean zintzilikatzea adosten du.

8.-Aipatu den urteurrena dela eta, udalbatza honek bat egiten du 2018ko Otsailaren 27an arratsaldeko 18:30etan Tolosako Udaletxe aurrean, Tolosaldea Sahararekin elkarteak deitutako elkarretaratzearekin, “Maroko Saharatik at Independentzia Mendebaldeko Sahararentzat” lemapean.

Adeitasunez

TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEA”

7.- GALDE ERREGUAK.

Josune Eizmendi Manterola ondorengoa adierazi du:

2018ko martxoaren 8an, Anoetako EH Bilduko Udal Taldeak ez du ekitaldi instituzionalik burutuko, mundu mailan mugimendu feministak deitutako “Emakumeok planto!” ekimenarekin bat eginez. Atxikimendua adierazteko, udaletxeko balkoian zapi morea jarriko da.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta laurden direnean; guzti honetaz, nik, Bitarteko Idazkariak, fede ematen dudalarik.